



<http://www.euskadi.eus/hizkuntza-ikastaroak-atzerrian-uda/web01-a3helebi/eu/>

ESKABIDEA NOLA EGIN

Ikasle adindunak edo adingabe emantzipatuak egingo du eskaera; adingabe emantzipatu gabeen kasuan, berriz, aitak, amak edo legezko ordezkariak.

- Ziurtagiri digitalaren bidez sartuta (NAN, lizenpe txartela...) edo itsasontzien jokoa erabilita (B@kq)
 - Betetzeko epea: 2018 azaroaren 16tik abenduaren 17ra, biak barne
 - E Bide honetan **ez** da eskabide-formularioa ikastetxean aurkeztu behar
- Sisteman erregistratuta, helbide elektronikoko baten bidez **eta honako bide hauetako bati** jarraituta: HIA (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) / NAN
 - Betetzeko epea: 2018 azaroaren 16tik abenduaren 17ra, biak barne
 - Ikastetxean aurkezteko epea (**beharrezkoa**): 2018ko abenduaren 17ra arte, egun hori barne, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen
- **Ikastetxean bertan, bide presentzialean**: 2018ko azaroaren 16tik abenduaren 17ra, biak barne, idazkaritza-ordutegia amaitu baino lehen

BETEKIZUNAK

- Aurreko ikasturtean 7,00 puntuko gutxieneko nota lortu izana eskatutako hizkuntzan/hizkuntzetan, eta 16,00 puntuko edo gehiagoko puntuazio osoa lortu izana aurreko ikasturteko batez besteko notaren eta eskatutako hizkuntzako notaren arteko baturan.
- Eskatzen den plazari dagokion/dagozkion hizkuntza/hizkuntzak ikasten aritzea eskaera-dataren aurreko bi ikasturteetan (2016-2017 eta 2017-2018), eta azkenengoan funts publikoen bidez finantzatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean ikasi izana hizkuntza hori.
- Epe-barruan egitea plaza atxikitzen zaion tarteari dagokion diru-ekarpena (2.2. artikuluan jaso da).
- Aurreko urteetan, Hezkuntza Sailak egindako deialdian plazarik eskuratu ez izana atzerrian hizkuntzak ikasteko; salbuetsita daude baldintza hau betetzetik Matematika Olinpiadetako sari gisa plaza lortu duten ikasleak.
- 2019an gehienez 19 urte betetzea.